

## BERRIKUNTZA AGENDETAN IDENTIFIKATUTAKO PROIEKTUEN GARAPENA BURUTZEN HASI GARA



Acorde Consulting-ek 20 enpresa baino gehiagoren berrikuntza agendaren definizioan aritu da lanean, SPRI-k bultzatutako Berrikuntza Agenda programaren barruan. Acorde Consulting-ekin beren agenda definitu duten enpresentzat, definizio prozesuak berak, erakundearen kudeaketan aurrera pausu bat suposatu du.

Agendaren definizioa aurrerapen bat izanik, agendaren garapena maila bat gorago igotzea da, hausnarketatik akziora pasatzea. Acorde Consulting-eko aholkulari taldea hasi da jadanik agendaren garapenean lan egiten.

Jakingo duzueenez, berrikuntza agendaren garapena **gaikuntza proiektu eta berrikuntza proiektuetan gauzatzen da**. Gaikuntza proiektuak berrikuntza inkrementala lortzera zuzenduak daude. Berrikuntza proiektuen garapena aldiz elementu hauetan zehazten da: proiektuaren helburu, fase eta edukien zehaztapena eta finantzaketa aukeren (plangintza eta programak) eta kolaboratzaileen (berrikuntzaren garapena sustatzen duten zentro eta erakundeak) identifikazioa.

Acorde Consulting-en bi bezeroen agendetatik sortutako eta diruz lagundutako gaikuntza eta berrikuntza proiektuak abian dira. Bi bezero hauek, Naberan Sareak eta San Viator Sopuerta ikastetxea dira. Naberan Sareak arrantzarako sareen eta material osagarriaren diseinu, fabrikazio eta salmenta du aktibitate nagusiztat. Honako hauek dira SPRI-k ontzat hartutako proiektuak:

\* **Naberan Sareak:** enpresa honek martxan jarritako bi berrikuntza proiektuak bere aktibitatearen dibertsifikazioa bilatzen dute, merkaturuan onarpen handiagoa duten sektoreetara zuzenduz, akuikultura eta ingurumena hain zuzen ere. Definitutako proiektuek aktibitate berri hauen ezarpenean pausuak ematea dute helburu.



\* **San Viator Sopuerta:** ikastetxe honek esku artean duen gaikuntza proiektua, enpresa zaintza burutzeko sistematika bat garatzera zuzenduta dago, erakundearentzat garrantzitsua den informazioa eskura izateko helburuarekin. Sistematika honek informazio beharrak identifikatzeko, erregistratzeko, berreskuratzeke, erabiltzeko eta konpartitzeko klabeak definituko ditu.



### HURRENGO IKASTAROAK ETA MINTEGIAK

\* **Mintegia: Baliagarria de EFQM eredu gaur eguneko testuingurua?:** ekainak 17 Bilbon (APD). Hizlariak: Jose Antonio Calvo eta Javier de la Peña (Acorde Consulting), Ina Esnaola (NECO-ko Zuzendari Nagusia) eta Luis Manuel Fernández (Vicrila-ko Ordezkaritza Orokorra).

\* **Mintegia: Krisi egoerara egokitutako kudeaketa klabeak:** ekainak 23 Bilbon (FVEM). Hizlariak: Jose Antonio Calvo, Javier de la Peña eta Kati Alonso (Acorde Consulting).

\* **Estrategia eta helburuen hedapena:** irailak 18, urriak 2 eta 23 eta azaroak 20 Zamudion (Teknologi Parkea). Irakaslea: Jose Antonio Calvo. Antolatzailea: Euskalit.

\* **5S-en ezarpena zerbitzu enpresetan eta administrazio publikoan:** irailak 25, urriak 23 eta abenduak 4 Zamudion (Teknologi Parkea). Irakaslea: Javier de la Peña. Antolatzailea: Euskalit.

\* **EFQM kasu praktikoa baten ebaluaketa: ebaluatzaile klubeko partaidea izateko aukera:** irailak 16 eta 30, urriak 21, azaroak 11 eta 25 eta abenduak 9 Gasteizen (Ingeniarien Elkargo Ofiziala). Irakaslea: Jose Antonio Calvo. Antolatzailea: Euskalit.

\* **Prozesu bidezko kudeaketaren ezarpena enpresa industrialetan:** irailak 10 eta 24, urriak 22 eta abenduak 3 Zamudion (Teknologi Parkea). Irakaslea: Jose Antonio Calvo. Antolatzailea: Euskalit.



## ACORDE CONSULTING-EN ACLIMAREN PLANGINTZA ESTRATEGIKOA BURUTU DU CIMAS-EN LANKIDETZAN

Acorde Consulting-ek CIMAS ingurumen arloko aholkularitzarekin kolaborazio harreman estu bat du. Harreman honek eman duen fruituetako bat, bi erakunde hauen artean garatutako aholkularitza proiektu bat izan da.

Proiektuaren emaitza **Acilma (Euskadiko Ingurumen Industrien Kluster Asoziazioa) plangintza estrategikoaren definizioa** izan da. Bi enpresek proiektua hasi baino lehen aurreikusitako rola garatu dute:

- \* **Acorde Consulting-ek** metodologia arloko aholkularitza lanak egin ditu, hausnarketa estrategikoa burutzeko proiektuetan duen esperientzian oinarrituz.
- \* **CIMAS** aholkularitza teknikoaz arduratu da eta bere ekarpenak ingurumenaren arloan duen esperientzian eta ezagutzan oinarritu dira.

Honetaz gain, proiektuan parte hartu dutenen zerrenda zabala da: **Txetxu Aurrekoetxea (Acilma-ko Kudeatzailea), Begoña Castillo eta Mikel Ibarra (Acilma-ko teknikariak) eta Acilma-ko bazkideen eta Batzorde Betearazlearen ordezkariak zabal bat, Javier Caño Lehendakaria barne**. Acilma-ko bazkideen parte hartzea sustatzeko sakoneko elkarrizketak eta lan taldeak egin dira. Hortaz, bazkideek Acilma-ko aholkularitza indarguneen identifikazioan eta mehatxu/aukeren kontrastean parte hartu ahal izan dute.

**Datorren uztailak 9-an bazkideei zuzendutako Plangintza Estrategikoaren aurkezpena izango da.** Halaber, beste interes taldeei ere informazioa eskainiko zaie web orriaren bitartez.



Txetxu Aurrekoetxea, Begoña Castillo eta Mikel Ibarra (Acilma), Aitziber Rodriguez (Cimas), Oscar Ayllón eta Raquel Escallada (Acorde Consulting)

### KOLABORAZIO BERRIAK NAFARROAN

Acorde Consulting-ek, etorkizuneari jarraipena izango duen kolaborazio harreman baten barnean, berriro ere nafarroako bi erakundeekin lankidetzan aritu da, kudeaketa arloko ikastaroak emanez:

\* **Kalitateko Nafarroako Fundazioa:**

✍ EFQM Ereduan oinarritutako ebaluatzaileak trebatzeko ikastaro bat antolatu da. Irakaslea: Jose Antonio Calvo. Data: maiatzak 5 eta 19 eta ekainak 2, 16 eta 30.

✍ Ekainak 23-rako "Aldaketa garaian kudeaketan bikaintasuna lortzeko apustua" mintegia antolatu da. Hizlaria: Jose Antonio Calvo.

\* **Nafarroako Marketing Kluba:** maiatzak 21-ean "Aginte taula eta mapa estrategikoen garapena eta hedapena" ikastaroa ospatu zen. Hizlaria: Jose Antonio Calvo.

